

# B

BARREN

Elgoibar **KOLORETAN**

# Gure herria hobeto ezagutzeko mahai-jokoa





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixilion 2-2. pabiloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.es  
www.excavacioneslekunberri.com



## Lorzaintza

### Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilola  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

### Desigual

San Inazio, 5 behea  
☎ 943 748 925  
☎ 677 846 069  
Faxa: 943 531 502  
pinturasdesigual@hotmail.es

## Kontsumitu baserriko produktuak

Gure gizartea oso lotuta egon da hasiera-hasieratik bere ingurune naturalari. Naturak bizitzeko bitartekoak ematen zituen bitartean, gizakiek modu orekatuan erabiltzen zituzten naturaren baliabideak. Honela, mendeetan landa-kultura bat sortzen joan zen, lurrari lotutako bizimoduarekin eta balioekin, eta horiek belaunaldiz belaunaldi iraun dute gure lurraldean.

Joan zen mendearen bigarren erdialdean, gizartearen industrializazio intentsiboarekin oreka hori galdu egin zen, eta beste gizarte berri bat sortu zen, urbanoagoa, beste ekonomia, kultura eta ohitura batzuk zituena. Urte hauetan, gizarte urbanoa landa ingurunearengandik urruntzen joan da, eta gaur egun badirudi elkarriz bizkarra emanda bizi direla eta, are gehiago, ematen du ez duela aintzakotzat ere hartzen.

Ez dakit zenbateraino jabetzen garen landa ingurune bizi baten gure gizartearentzat duen garrantziaz. Bertan bizi direnek, beraien lanari esker, kalitatezko elikagaiak ekoizteaz gain, gizartearentzat oro har beharrezkoak diren hainbat eta hainbat funtzio betetzen dituzte: ingurumenaren zaintza, paisaiaren kudeaketa, biodibertsitatearen babesa, gure ondare kulturala, ohitura eta tradizioen kontserbazioa eta hain garrantzitsua den lurraldearen oreka eta iraunkortasuna.

Guzti horregatik beharrezkoa da guztion konpromisoa landa ingurunearen mantenuan, honek dakartzan onurak ez direlako bertan bizi direnentzako bakarrik, herri bateko biztanle guztien-

tzako baizik, eta gainera ezinezkoa litza-teke herri aurreratu eta garatu bat izatea landa ingurune garatua ez daukagun bitartean.

Baina nola gauzatu dezakegu gure konpromisoa? Ba oso erraz: lehenengo eta behin baserriarrek egiten duten lana baloratuz, berari esker gizarteak dituen onurak kontaezinak direlako, eta bigarrenik landa eremuan ekoizten diren zerbitzu eta baserriko produktuak kontsumituz. Horretarako badaukagu Elgoibarren aukera paregabea merkatu plazan, zenbait denda txikitan eta hil bukaerako ferietan.

Animatu gaituzen eta kontsumitu ditzagun baserriko produktuak, merezi du-eta.

Agurtzane Etxaniz



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Landa ingurunean, kalitatezko elikagaiak ekoizteaz gain, gizartearentzat beharrezkoak diren hainbat funtzio betetzen dituzte”**

**JOANES RODRIGUEZEN  
BLOGA JARRIKO DUGU MARTXAN  
ASTELEHENEAN!**

**Pentsatu  
prisarik gabe,  
ekin geratu gabe**



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

**[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)**



# CONSTAN NUÑEZ

KAZETARIA

**“Hurrengo astean ez etortzeko esan ziguten ‘Correón’, ez omen delako errentagarria”**

Constan Nuñezek 25 urte eman ditu Elgoibarko eta Mendaroko albisteak idazten *Correo* egunkarian. Baina hainbeste urteren ostean, kalera bota dute. Kazetari lana alde batera laga, eta orain bera izan da BARRREnek egindako galderak erantzun behar izan dituena. Leioan ikasi zuen kazetaritza Constanek, eta bere lanak ate asko zabaldu dizkiola esan du: kazetaria izanda, alor asko ikusteko aukera egoten dela, denetarikoa jendea ezagutu daitekeela. Baina eguneroko lanak estresa sortzen duela ere gaineratu du; orain, atsedena behar du.



## Zenbat urtez aritu zara kazetari?

Aurreko egunean begiratu nuen ea zein izan zen nire lehen artikulua eta 1989an kaleratu nuen sinatutako lehena. Baina lehenago ere *La Voz de Guipuzcoa* egunkarian bi urtez aritu nintzen. Hura itxi zute-nean, *Correo*-ra pasatu nintzen.

## Zelan sortu zitzaizun *Correo* egunkarian lana egiteko aukera?

Kasualitatea izan zen pixkat bat. Lehen ze-

goen kazetaria etorri zitzaidan galdetzen ea nahi nuen korrespondentsalia hartu, eta baietz esan nion. Horrela hasi nintzen. Bata laga eta jarraian beste egunkarian hasi nintzen.

## Urte asko eman dituzu kazetari, zer aldatu da zure lanean?

Dena. Bai alde tekniko batetik, eta baita eduki aldetik ere. Aurreneko urteetan dena eskuz egiten genuen, idazmakinez idazten nuen eguneko kronika. Hurrengo

egunean gasolindegira eroaten nuen eta han garraiolari batek hartzen zuen Eibarrrera eramateko, eta hurrengo egunean argitaratzen zuten; beraz, idazten nuenetik bi egun pasatzen ziren publikatu arte. Gero ordenagailura pasatu ginen, eta berdin jarraitzen genuen. Hirugarren pausua, eta inportanteena, Internet izan zen. Lana etxean egiten hasi nintzen, eta gero Internet bidez bidali. Aldaketa handiena hori

izan zen. Idazten nuenetik albistea kalera-  
tu arte hiru egun pasatetik, idatzi eta hu-  
rrango egunean kaleratzera pasatu ginen.

#### **Edukia ere aldatu dela diozu...**

Aldatu egin da, eta asko gainera. Gipuz-  
koa osoa lantzen genuen lehen, edozein  
herritako albistek idatzen genituen. Pix-  
kanaka-pixkanaka kontzentratzen joan da  
eta ni neu Elgoibar eta Mendaroko albis-  
teak idatzera pasatu nintzen. Gainera, ha-  
sieran erreportajeak gehiago idazten ge-  
nituen, hori moztu egin dute, eta eguneko  
kronikara pasatu dira. Erreportaje handia-  
goak noizean behin idazten dira; astebu-  
ruetan-eta.

#### **Kazetari izateko asmoa noiztik zeneukan?**

Gaztetatik neukan asmoa, BUP ikasten  
ari nintzela buruan nuen ideia, eta Leioan  
ikasi nuen kazetaritza. Azken hiru ikastur-  
teetan lana eta ikasketak bateratuta egin  
nituen.

#### **Unibertsitatean ikasitakoak eta lanak eduki du zerkusirik?**

Nozio batzuk hartzen dira, baina uste dut  
beti gertatzen dela arazo bera: ikasten  
duzuna oso teorikoa izaten da, eta erre-  
alitatea beste bat da. Ematen dituzun ikas-  
gaiak denetarikoak dira: ekonomia, zu-  
zenbidea... eta ez datoz gaizki baina lan  
oso konkretua edukitzen duzu eta ikasita-  
ko guztia ez duzu erabiltzen. Hala ere, he-  
rrietako albistek lantzerakoan, pixka bat  
denetarik egiten duzu, politika, kultura, ki-  
rola, eta alde horretatik ondo etortzen da  
esparru guztietatik zerbait egiteko. Baina  
maketazioa, zuzenbidea eta horrelakoak  
ez dituzu erabiltzen. Gainera, ikasten zau-  
den garaian, txoriak dituzu buruan eta  
pentsatzen duzu zerbait handia egingo  
duzula, eta ez da hori gertatzen. Eta pro-  
fesio honetan, jende asko langabezian  
dago, konpetentzia oso handia da. En-  
presak gainera gastuak moztzen hasi dira,  
eta egoera txarrera doa, lehen baino zai-  
lagoa da orain; eta zailagoa izango da.

#### **Ohiturak asko aldatu dira...**

Internetek, adibidez, alde horretatik ez du  
asko laguntzen. Jendeak paperezko  
egunkaria erosteari laga dio eta Interne-  
ten irakurtzen ditu albistek.

#### **Zein da sekula eman duzun albisterik bi- txiena?**

Albistea bera baino, albistea emateko  
zein egoeratan egon nintzen da arraroe-

na. Orain dela lau edo bost urte gertatu  
zitzaidan: Udalean egoera ez zegoen oso  
ondo, informaziorik ez zuten ematen, eta  
sasoi hartan Madalako eskenatokia jarri  
zuten. Nondik zetorren galdetzen hasi  
nintzen eta ez zidaten inoiz erantzun. Be-  
raz, artikulu surrealista xamarra egin be-  
har izan nuen.

#### **Eta gehien gustatu zaizuna?**

Zaila da bakar bat aukeratzea. Adibidez,  
elkarrizketa oso gogorra egin nuen. Hie-  
saren ondorioz hildako lehenengoetako  
baten ama elkarrizketatu nuen, hil eta hi-  
ru bat egunetara. Edo adibidez 1988ko  
uholdeetan hildakoak egon ziren Elgoiba-  
rren eta gogorra egin zitzaidan idaztea.  
Oro har, elkarrizketa guztiek dute zerbait  
interesgarria.

**“Kazetaritzan  
ikasten duzuna  
oso teorikoa da,  
eta errealtatea  
beste bat da”**

#### **Zein albiste ematea gustatuko litzaizuke?**

Deba ibaia errekeratuta dagoela, ener-  
gia berriztagarriak ipintzeko aprobetxatu  
dutela, edo bidegorri sarea egin dela El-  
goibarren, horrelako albistek.

#### **Lanetik kaleratu zaituzte, zein izan da emandako arrazoa?**

Ez digute arrazoirik eman, esan diguten  
bakarra zera izan da: “Hurrengo astean  
ez etorri berriro”. Aurretik zetorren zurru-  
murrua, eta ikusten genuen gure sekzioa  
moztzen ari zirela, beraz, askotan komen-  
tatzen genuen gure egoera. Ez dela  
errentagarria esan digute, baina azalpen  
gehiago ez dugu jaso. Gainera, 25 urte-  
ren ostean amaitu da eta ez dugu ezer ja-  
so, gogorra izan da, eta ikusi egin behar-  
ko da ze neurri hartzen dugun.

#### **Korrespontsalen lana zein da?**

Alde batetik nik erabakitzen nuen zer ida-  
tzi, baina beste aldetik egunkarira iritsita-

ko prentsa-oharren bitartez eurek esaten  
zidaten zer egin.

#### **Zer da kazetaritzaren onena eta zer txar- rrena?**

Aukera daukazu gauza oso ezberdinak  
ikusteko, eta oso interesgarria da. Pixkat  
bat kurioa bazara, ate asko zabaltzen  
zaizkizu eta polita da. Baina alde txarrena  
da korrespontsal moduan, Elgoibarren bi-  
zi naizenez, lana kazetari moduan eta di-  
plomatiko moduan egin behar duzula.  
Herriko albistek lantzen dituzu, eta egu-  
nero bertan zaudenez, jendeak beti dau-  
ka zerbait esateko. Gainera, eguneroko  
lana oso estresagarria da, batzuetan al-  
biste gehiegi dagoelako eta ezin ailegatu-  
ta ibiltzen naizelako, eta bestetan, albiste-  
ak falta eta ezin asmatu zer idatzi. Egune-  
ro buruan bueltaka edukitzen duzu lana.

#### **Berriro ere ikasi beharko bazenu, kazeta- ritza aukeratuko zenuke?**

Ba ez dakit zer esan. Bai eta ez. Kazeta-  
ritzako munduak zelan funtzionatzen  
duen ikusita, zein jende egiten duen lana  
honetan, kazetaritza ikasi beharrik ere ez  
dago. Baina, ni neu gustura nago egin  
dudanarekin.

#### **Irratia, telebista eta prentsa, hiru medioe- tatik zein nahiago?**

Telebistan ez dut sekula lanik egin, baina  
irratian eta prentsan bai. Irratian, adibi-  
dez, elkarrizketa bat egin eta ez duzu  
moldatzen; moztu egiten duzu gehienez  
ere, baina ez besterik. Prentsaren ka-  
suan, beste lan bat eskatzen du: teknika.  
Hitz egiterakoan tonua jartzen duzu, eta  
idazterakoan, zuk zeuk jarri behar diozu  
tonua, eta teknika oso-oso ezberdinak di-  
ra. Gehien landu dudana prentsa da, eta  
hobeto moldatzen naiz; praktika kontua  
izango da.

#### **Eta orain, zer?**

Orain, atsedena. Beharra daukat. Gero,  
ez dakit zer egingo dudan. Baina egune-  
roko lana oso estresantea izan da, eta he-  
mendik aurrera, zerbait idaztekotan, erre-  
portajea edo gauza puntualak izango di-  
ra. Eguneroko lanarekin ezin duzu goza-  
tu; dena segituan egin behar da, denbora  
beti gainean. Beraz, idazten badut izango  
da beste erritmo batekin.

# Elgoibarren 28 emakumek tratu txarrak salatu zituzten 2006-2007 urteetan

Martitzenean emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako aldarrikapen ugari izan zen, han hemenka. Azken aldian argitara eman dituzten datuek agerian laga dute egoera gordin-gordina dela. Elgoibarren bertan, esate baterako, 28 emakumek tratu txarrak salatu zituzten 2006-2007 urteetan. Kaltetuak gero eta gazteagoak diren bitartean, gero eta nabarmenago da gizonezkoek berdintasunaren aldeko jokabide berriak bereganatu behar dituztela.

**Oier Narbaiza**

**G**urean ere genero indarkeria sarri gertatzen dela agerian gelditu da berdintasun teknikariak emandako datuen arabera. 2006-2007 urteetan Elgoibarren 28 emakumeren kontrako erasoak zenbatu dituzte eta askatasun sexualaren kontrako delitu bat ere. Debabarreneko diagnostikoaren arabera, aldatzen ari da genero indarkeria jasaten duten emakueen perfila. Kaltetuak, gehienbat, etxeoandreak eta emakume nagusiagoak ziren lehen. Orain, berriz, gero eta gehiago, emakume gazteen kasuak agertzen dira, adinez nagusiak izan arren.

Emakume etorkinen kasua ere nabarmendu du ikerketak, batez ere latinoamerikakoena. Hango zortzi emakumek tratu txarrak jaso dituztela jakin izan da. Kaltetutako beste emakumeak gipuzkoarrak (13), arabarrak (1) eta beste estatu batzuetakoak (6) dira.

### Erasotzaileak

Erasotzailea kasu gehienetan senarra da. Elgoibarren zenbatutako 28 tratu txar kasuek hori jasotzen dute behintzat: 21 ezkonkide salatu dituzte.



**LUIS CERRON**

*Irakaslea eta psikopedagogoa*

## Gizonezkoen eta berdintasunaren inguruko mahaingurua

Abenduaren 15ean “Gizonezkoek berdintasunaren aurrean zer” mahaingurua izango da Kultur Etxean, emakumeenganako indarkeriaren nazioarteko egunaren harira. Bertan Luis Cerron irakasle eta psikopedagogoa eta Xabier Odriozola antropologoak parte hartuko dute.

Odriozolak maskulinitate berriei buruz jardungo du. Haren arabera, gizonezkoek rol zehatz batzuren jabe bihurtu dira historikoki. Jokabide zaharrak alde batera lagatzeko eskatuko du, berriak hartu ahal izateko (berdintasunzaleak, demokratikoak...).

Luis Cerronen iritziz, “ondorengoei zerbait berririk pasa nahi badiegu, lehendabizi, aldaketa guk geureganatu beharko dugu”.

Cerronen ustez, berdintasunik ez dago eta horrexegatik sortzen da indarkeria: “Alde batetik zapaltzaileak zapaltzen jarraitzea nahi duelako eta zapaldua sentitzen denak defendatzea nahi duelako. Arazoa gizartearena baldin bada, ondorioz, gizartea osatzen dugun bakoitzarena dela esan daiteke. Eta erantzukizuna ere”. Bere esanetan matxismoa batzuen saiakera da, beste batzuen gainetik, botereari eusteko.

Senar erasotzaileak amerikarrak (8), beste estatu batzuetakoak (5), gipuzkoarrak (7) eta arabarrak (1) dira.

## Nora jo

Honelako indarkeria kasuren bat gertatzen denerako, jarraibide bat betetzeko ahalegina egiten dute erakunde publikoek. Lehenik ospitalera jo beharko luke emakume kaltetuak. Gero, Ertzaintzarekin egondakoan, abokatuarekin jartzen dute erasotutako emakumea harremanetan. Horren ostean, Gizarte Zerbitzuek beharrezko laguntza eta arretari buruzko argibideak emango dizkiote.

Era guztietara, Gizarte Zerbitzuetara salaketarik jarri gabe ere jo dezake kaltetuak. Berez, hainbat bidetatik heltzen dira emakumezkoak Gizarte Zerbitzuetara: osasun zentrutik eta poliziarenetik pasatu eta gero, edo bestela lagunekin egon ondoren.

Udaltzaingoak tratu txarren berri duenean, kasua Ertzaintzaren esku lagatzen du. Eibarko komisaldegian hogeitasei agente daude kaltetuei kasu egiteko. Horietatik bi baino ez dira emakumezkoak. Txostenaren arabera, genero indarkerian formatutako inor ez dute, Arkauten ikastaroren bat egin izan duten arren.

Arretari dagokionez, erasotutako emakumeentzako etxebizitza bat badagoela

nabarmendu du txostenak, Eibarren. Behar duten emakumeen esku lagatzen dute, hiru hilabetetarako (epea luzatu daiteke). Kasu batzuetan, emakumeak beste leku batera eraman behar izan dituzte, ziurtasuna dela-eta.

Horrez gain, Foru Aldundiak laguntza psikologiko eta juridikoa gauzatzeko programa ordaintzen du. Hotelean bi edo hiru egunez egon behar duten emakumeei ere egonaldia ordaintzen die. Diputazioak eskaini die laguntza psikologikoa adin txikikoei behar izan duten kasu batzuetan.

## Udalaren agiria

Elgoibarko Udalak "indarkeria matxistak eragindako gaitz sozialaren aurka" lanean jarraitzeko konpromisoa hartu zuen martitzenean, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean. Gizonei dei egin die indarkeria mota horren kontra konpromiso aktiboa hartzeko eta jarrera sexistak baztertzeko.

Plenoaren ostean, enkartelada egin zen. Zinegotziak gehienbat *Emakumeenganako indarkeriari ez pankartaren ostean jarri ziren. Aldamenean beste pankarta bat zabaldu zuten herritar batzuek: Jendarte patriarkalik ez! Benetako pausuak orain!* irakur zitekeen. Lurrean, etzanda, andrazkoen siluetak jarri zituzten.

## Gero eta emakume gazte gehiago agertzen dira estatistiketan



Martitzenean tratu txarren kontrako kontzentrazioa izan zen Plaza Handian.

### Gaizki tratatutako emakumeak (2006-2007)

• 18-22 urte	4
• 23-27 urte	4
• 28-32 urte	6
• 33-39 urte	5
• 40-49 urte	4
• 50-59 urte	3

GUZTIRA 28



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Petrila

Zeinek esango zuen 2008ko azaroaren 12a izango zela petrila azken aldiz ikusiko genuen eguna?

Egun gogoangarria benetan elgoibartar garen guztiontzat. Izan ere, kodrilaz koadrila herritar guztien ipurdien berroa jaso duen hormigoi zati preziatuena-ri agur esateko ordua iritsi da.

Askok esango duzue sokamuturra ez dela berdina izango hura gabe, ezta larunbat arratsaldeetako juerga, eta, nola ez, Madala berak ere ez du berdina izaten jarraituko. Izan ere...

Zein ez da bertan jarrita egon? Nork ez du bertan ipurdia zeharo hoztu?

Koadrila askok igaro baitituzte Madalan, hantxe bertan, momentu izugarriak eta ahaztezinak. Petrila guztiona baitzen, baita guztiontzat ere.

Generazioz generazio bertan iraun duen harri pusketaz aparte, gure herriaren zati garrantzitsu bat zela pentsatzen dugu askok. Beste batzuk horrela ez dute baloratzen.

Gazte asko hurbildu zen obra ingurura, batzuk korapiloa ezarrarian eta argazki kamera eskutan hartuta, beste batzuk petrila zati bat etxera eraman zutela ere ahala da. Gutxi baitira inporta ez zaienak.

Eta orain zer? Zer izango da bertan eseritzen diren gaztetxoek? Eta Elgoibarez? Sokamuturraz? Eta Madala beraz?

Herriko jende nagusiak ezagutu du petrila. Pena izan da kentzea. Beste gauzak egin zitezkeen eta petrilari eutsi.

Petrilak ez zion inori traba egiten. Gurasoak esertzen ziren, umeak bijilatzeke. Eta gazteentzako leku aproposa zen arratsaldea pasatzeko.

Kalendariora betirako markatuko digu egun honek elgoibartarrei. Batzuei beste batzuei baino gehiago agian, baina guztientzako da zerbait petrila...

Koadrila bakoitzak han bizi izandako momentuak berarentzat gordeta betirako... Ezin da hitzez esplikatu bakoitzak han bizi izan duen guztia!!!

Guztiak bat, herria lotuta. Lortuko dugulako!!! Beste petrila bat lortuko dugulako, nahiz eta berdina ez izan... Imitazioa bada ere, behintzat denak berdin jarraituko duelako, eta Madala ez delako hain hutsik ikusiko.

Askok botako dugu faltan. Milaka bizi- zipen, barre, negar...

L.M. eta B.G. ☺

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Arkaitz Irureta

Mendizaletasuna zer duk hiretzat, Txino?

Sarri egiten zioat galdera hori nire buruari; izan ere, makina bat aldiz esplikatu

zuten saiatu nauk, bai gainontzekoei eta baita nire buruari ere zergaitik nagoen mendiar kateatuta. Horren haritik, makina bat liburutun erantzunak bilatzen ere jardun diat eta erantzun ezberdinak aurkitu ere bai, batzuk gustukoago, beste batzuk ez hainbeste.

Tontorrek dominazio sentsazioa ematen omen dik. Bideak, aldiz, dopamina, adrenalina, endorfina edo eta feromonak husten lagundu eta horrek ondo sentiarazten hau. Idazle eta mendizale batzuren esanetan, hoberena kontzentrazio sakonak eta ondorengo momentuek ematen ei diate, “plenitude edo perfekzio momentu urriak”, budistek “kensho” deitzen ziotek, “guztiz bizirik, unibertsorekin bat zaren momentua” edo “kristauek jainkoaren agerpena deitzen dioten une hori” bezalako esaldiak irakurri dizkiat liburuotan.

### “Mendiaz disfrutatzea bidearen dotoreziaz gozatzea duk niretzat”

Mendiak ematen diguna ematen digula, mendizaleok daukagun akats bat, baina, tontorrek norberarentzat egin ordez, izenaren atzetik joatea duk nire aburuz. Felix Iñurrategik esan zian behin: “Zergatik neurtu mendiak metrotan, eta ez eginiko bidearen dotorezian?”

Hots, mendiaz disfrutatzea hori duk niretzat, naturaz, bidearen dotoreziaz gozatzea. Ildo beretik ulertzen dizkiat nire beste kirol zaletasunak; surfa, eskalada, mendi eskia, buzeoa, mendikleta. Eta kasualki denek diate amankomuneko ingurune bat. Udan mendiko egonaldian gertuago igerri ahal izan dudana sentsazioa, hemen porlanak kendu didana. Naturarekin bat izan eta...



Sugar Etxaniz

Sekula ez zioat galdera hori egin nere buruari. Ez zekiat zergatik, mendizaletasuna zer den badakidala uste dudalako igual, edo zer den jakin beharrik sentitu ez dudalako. Baina mendia ezagutu eta mendia gustuko ez duenak ere izango dik nahiko lan bere buruari eta besteoi esplikazioak ematen.

Kontuak kontu, mendia gustuko diat aspalditik, baina urteetan zehar, nire kasuan, mendiaz gozatzeko erak aldatzen ari dituk. Lehen gure burua zenbateraino iritsi ahal zuan probatzen, leku ezezagunak deskubritzen, min hartzeko beldurrik gabe, galteak ematen duen ikararik gabe ibiltzen gintuan, mendia erritmo gogorrean disfrutatuz.

Oraindik batzuk erritmo gogor horri eusten diozue, bejondeizuela esan beharko inbidia sanoaz agian. Asteburuan zer egin duan galdetzen diadan bakoitzean, entzute hutsarekin bakarrik, hurrengo egunean gorputz guztian agujetak eukiko dituala uste diat.

### “Nire kasuan, mendiaz gozatzeko erak aldatzen ari dituk”

Beste modu batean daroat asuntua aspaldion, lasaiago, mendira sarri joan arren gertuago, seguruago, anbizio txikiagoaz, gehiago ikusiz, entzunez.

Hori ote da naturarekin bat izan eta harremanetan jartzea?



Elgoibarko Udala



ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Hies gaitzaren Nazioarteko Eguna izango da abenduaren 1ean eta momentuz, herrian ez da inolako ekitaldirik egingo.

## Hiesa apur bat ahaztuta dagoela iruditzen zaizu?



**Santiago Carrascosa**  
67 urte, jubilatua

Bai, erabat ahaztuta daukagu. Gaur egun ez da gaixotasunari buruz informatzen, erlaxatu egin dira eta oraindik jende askok ez daki ezer hiesari buruz. Gazte jendea ondo pasatzera irteten da kalera, eta nire ustez, informatu egin behar zaie hiesaren arriskuaz.



**Blas Garcia**  
66 urte, jubilatua

Bai. Etxean edo inguruan hies kasuren bat bizi izan dutenak gogoratzen dira, baina gainontzekoak ez. Nire ustez, orain lehen baino garrantzitsuagoa da informazioa ematea. Garai batean denok geneukan buruan hiesa, baina orain ez, eta gogoratu egin behar da.



**Sixto Duque**  
64 urte, jubilatua

Bai, apur bat ahaztuta daukagu. Badirudi gaixotasuna kontrolatuta dagoela, eta lasaitu egin gara. Hiesa sendatzeko aurrerapenak egin dira, baina oraindik kasu berriak agertzen dira, eta jendea hiltzen da. Informazioa ematea oso garrantzitsua da, hiesa oraindik hor dago.



**Mª Angeles Lombardero**  
49 urte, medikua

Ni medikua naiz, eta ez daukat gaia ahaztuta. Egia da erakunde publikoak asko lasaitu direla gai honekin, eta informazio kanpainak egitea garrantzitsua da, baina jendea heziz, beldurrik sortu gabe. Garai batean alarma handia zegoen hiesaren inguruan.

## Txankakuaren hileko lehenengo osteguneko sustapena

Abenduak 4

Hileko lehenengo ostegunean, Txankakua elkarteko dendek hainbat sustapen kaleratuko dituzte. Produktuak prezio onean lortzeko aukera izango duzue!



Diru laguntzaileak: Industria, Merkataritza eta Turismo Sails

**Enpresa batzuek euren publizitate orriak autotan jartzen dituzte:**

"Azken aldian publizitate egiteko modu bitxi eta gogaikarria dabilte enpresa batzuk. Autora joan, martxan jarri eta kristalera begiratzean hantxe daude beira-garbigailuan kateatuta publizitate orriak. Aste honetan bi, bakoitza alde banatan. Gainera, euria ari zuen, eta paperak puskatuta geratu ziren kristalean pegatuta. Jende askok orriak hartu eta lurrera botatzen ditu, eta ingurune guztia paperez beteta geratzen da. Trenbide kalea eta Bernardo Ezenarro inguruko lurrak publizitate orriak josita zeuden. Publizitate sistema hori erabiltzen dutenei, beste metodoren bat erabitzeko eskatuko nieke. Jendea aspertuta dago".



**Trenbide kalean autoak oso azkar ibiltzen dira:** "Trenbide kalean zerbait egin behar da autoen abiadura kontrolatzeko. Estazio pareko zebrabidean lurra altxatuta dago, eta hora paur bat moteltzen dute gidariek abiadura, baina gero ziztu bizian egiten dute aurrera, eta oso arriskutsua da. Udalari eskatu nahi nioke zezoz eragiteko".

**Hamalau hilabeteko itxaron zerrenda dago ginekologia azterketa egiteko:** "Lotsagarria da! Denok dakigu emakumeontzako zeinen garrantzitsua den ginekologia azterketak egitea, eta Elgoibarko Osasun Zentroan hamalau hilabeteko itxaron zerrenda dago. Gaixotasun larriren bat izanez gero, ez dago garaiz harrapatzerik. Gero eta jende gehiago bizi da Elgoibarren, baina ginekologo kopuru berbera dago. Osasun Zentroko langileen gomendioz, erreklamazio orria bete nuen, eta herriko emakume guztiei eskatu nahi diet orri horiek betetzeko, denon artean lortuko dugu egoera hobetzea".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barrene@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrene@elgoibarkoizarra.com) 943-74 41 12

## ESKERTZA

**BIXI ESNAOLA EGAÑA**

2008ko azaroaren 7an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

**MARIA ARMENDIA IZAGUIRRE**

2008ko azaroaren 24ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Gerrate Zibilean lurperatutako gorpuak bilatzeko laguntza eskainiko du Elgoibarko Udalak

Ikur frankistak kentzeko neurriak hartuko ditu, onartu berri duen akordioaren arabera

**M**emoria historikoari buruzko akordioa onartu zuen martitzenean Udal Plenoak, aho batez. Erabakiaren arabera, konkordia, ideia guztien defentsa baketsuan eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritzen da akordioa. Eta horren baitan, Memoria Historikoa berreskuratzeko legea xertatzen da. Lege horren bidez, Gerrate Zibilak eta Diktadurak iraun zuen bitartean jazarpenera edo bortizkeria jasan zituztenen eskubideak onartzen dira, eta pertsona horien aldeko neurriak hartuko dira.

### Desagertutako gorpuak bilatzeko

Udal Plenoak onartutako akordioaren bidez, euren senideak non dauden jakin nahian dabilzan herritarrei erantzuten saiatuko da Elgoibarko Udala. Desagertutako pertsonak aurkitu, eta ahal izanez gero identifikatzeko lagun-

tza eskainiko zaie eskaera egiten duten herritarrei.

### Ikur frankistak

Desagertutako gorputzak aurkitu eta identifikatzeaz aparte, Memoria Historikoaren legeak ikur frankisten gaineko hainbat neurri jasotzen ditu, Gerra Zibilaren eta diktaduraren goraipamenik egin ez dadin, eta, era berean, sinboloak guztion "elkartasunerako" izan daitezzen. Hortaz, garai hartako errepresioaren goraipamen pertsonal edo kolektiboa egiten duten armari, insignia, plaka edo beste edozein objektu kentzeko neurriak hartuko dira.

Akordio honi esker, oraindik irekita dauden zauriak sendatzen laguntzeko borondatea duela adierazi du Udalak, eta Gerra Zibilaren ondorioak sufritu zituzten herritarrei dagokien ordaina eman ahal izango die.



## Azken zapatuko feria eta Magosto eguna izango dira bihar



Azken zapatuko feria egingo da bihar. Goizeko 9:00etatik eguerdira arte baserrietako produktua erosteko aukera izango da Nafarroa Plazan, eta ganaduzaleek animaliak jarriko dituzte salgai. Feriako giroa alaitzen trikitilariak jardungo dute. Baina, bihar ez da herri kirol saiorik izango. Neguko hilabeteetan ez da Lagun Artea taldearen ekitaldirik izango, eta udaberrian hasiko dira berriz euren erakustaldiekin.

Bihar, Magosto eguna gehituko zaio feriarri. Galiza Etxeak antolatuta, gaztainak banatuko dituzte 11:00etatik eguerdik 14:00etara.

## Irudia **Madalako parkea**



Madalako parkea berritzeko lanetan, hodi bat puskatu zuten astelehen goizean obretako langileek, eta ondorioz, parkeak urez gainezka egin zuen. Inguruko kaleko etxeetan ur mozketak izan ziren, baina uste baino lehenago konpondu zuten arazoa.

Bestalde, euri eta haizearen ondorioz, Madala eta Basarte inguruan argirik gabe egon ziren astelehen iluntzean, pare bat orduz. Altzolan ere tren zerbitzua eten egin zuten asteburuan, euritearen ondorioz.

## Zenbakia **101.500**

Elgoibarko Udalak 101.500 euro erabiliko ditu Eusko Tren enpresarekin batera gure herriko trenbide zatiaren trazatua aztertzeko. Geltokia eta bere inguruko zatia ikertuko dituzte, batez ere, trenbidearen trazatua eta geltokia bera, herrian hobeto txertatu daitezzen. Proiektuak, guztira, 203.000 euroko aurrekontua dauka, eta erdi-bana ordainduko dute bi erakundeen artean. Udal plenoak onartu egin du Udalaren eta Euskal Trenbide Sarea erakunde pulbikoaren arteko lankidetzat hitzarmena.

## Irudia **Jubilatuaren astea**

Jubilatuaren astea egin dute aste honetan zaharren egoitzan. Ospakizunen artean, txokolate jana egin zuten martitzenean. Kanpoko hotzari aurre egiteko, txokolate bero-beroa jan zuten. Bestalde, 80 urtetik gorakoek bazkaria egin zuten eta aurten urrezko ezteiak egin dituzte bikoteak omendu zituzten. Asteburuari begira, kina saioa izango da bihar, eta domekako meza nagusian hildako jubilatuak gogoratuko dituzte. Eguren orkestraren dantzaldiarekin amaituko dira ospakizunak.



## **Sabel dantza asteburuan**

Elgoibarko Gazteria Sailak antolatuta, sabel dantza ikastaroa izango da asteburu honetan, Olai-zaga Kiroldegian. Zapatu eta domekan izango da, goizeko 10:00etatik 13:00etara.

## **Jostailu egokiak aukeratzeko hitzaldia**

Atxutxiamaikak antolatutako jostailu erakusketa dela-eta, *Jostailu egokiak nola aukeratu?* hitzaldia izango da gaur, arratsaldeko 18:00etan Kultur Etxean. Hizlaria Maite San Vicente izango da.

## **Sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa**

Haizea emakume taldeak antolatuta, janari osasungarriari buruzko hitzaldia izan zen Kultur Etxean, joan zen barixakuan. Naiara Malave eta Iñaki Arregi izan ziren hizlariak. Sukaldaritza begetarianoaren inguruko kezka eta zalantzak argitu zituzten, eta herritarren harrera oso ona izan zela adierazi dute. Horren harira, sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa eskainiko dute, abenduaren 1etik 11ra. Ikastaro horretan, norberarekiko jarrera eta osasuna loturik daudela azalduko dute. Bi talde osatuko dituzte, eta bi ordutegi egongo dira aukeran. Interesatuak Pitxintxu opari dendan eman dezakete izena. Informazio gehiagorako deitu 943 741 378 edo 654 980 067 telefonoetara.



## Gure berbak

### Aditza (34): Aditz trinkuak: JUAN

Aditz perifrastikuak aztertu doguz (bi zati dituenak dira, aditz nagusixa, adibidez IKUSI, eta aditz laguntzaillia, adibidez DOT: *ikusí dot*), eta oraiñ aditz trinkueri gainbegiratu bat ematera pasauko gara.

Bestiak ez bezela, trinkuak berba bakarrian ematen diranak dira, aditz-forma bakarrian; aditz-forma hórretan dauke sartuta aditzaren errua, esanahixa dakarrena: *ibili, juan, etorri, jardun*, eta abar. Konparazio baterako, hauek dira forma trinkuak:

- ◆ *Lanian dihardut (jardun)*
- ◆ *Eskua daukat minduta (euki)*
- ◆ *Gauza asko dakidaz (jakin)*
- ◆ *Kalera nixe (juan)*
- ◆ *Pixu haundixa daruagu (eruan)*
- ◆ *Pozik nabik (ibili)*
- ◆ *Laster daton maixua (etorri)*

Eta abar.

JUAN aditzaren paradigmatia ikusiko dogu hasteko, oraiñaldikua. Hona zein diran nagusiki gure artian erabiltzen diran formak.

- ◆ Neutra: nixe, dixe, guaz, zuan, zuazte, dixez.
- ◆ Alokutiboa (giz.): najiek, hua, jiek, guazak/gaiezak, jjezak..
- ◆ Alokutiboa (emak.): najien, hua, jien, guanaz, jienaz.

Elgoibarko eta inguru laburreko bereizgarria da *nixe* forma hori.

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

1956

Arostegiko Marisol Etxanizek lagatako argazkia ekarri dugu aste honetan. San Isidro egunean ateratakoa da, maiatzaren 15ean. Nekazarien eguna ospatzeko, baserrietako neskatilak San Bartolome elizara joaten ziren, poxpolin jantzita. Eskaintza egiten zioten santuari, baserriko produktuekin. San Bartolome eta Errosario kaleetatik ere prozesioa egiten zuten.

Argazkian Arostegi baserriko Maria Luisa Agirrebeña eta Marisol Etxaniz eta Txillarreko Rosario Zubiaurre ageri dira, hamabi bat urte zeuzkatela. Argazkian agertzen ez bada ere, hainbat urtetan Gelatxo Errotako Kontxita Zabalak ere hiru neskatilekin parte hartu zuen San Isidroko ohitura honetan.



Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR  
Tfnoa.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

# NEGUA GAINEAN EGON ARREN, ELGOIBAR KOLORETAN IKUSIKO DUGU

**Elgoibarko Izarrak partxisa eta tribiala uztartzen dituen mahai-jokoa aurkeztu du**



900 galdera-erantzun dituen mahai-jokoak bi helburu ditu: ondo pasatzea eta gure herria hobeto ezagutzea.

*Elgoibar KOLoretan* ondo pasatzeko eta gure herria hobeto ezagutzeko mahai-jokoa da. Ia urtebeteko lanaren ondoren, atzo aurkeztu zen jendearen aurrean, nahiz eta salgai azaroaren 21ean jarri zuten. 32 euroren truke (26 euro Elgoibarko Izarrako bazkideentzat), mahai-joko original hau erosi ahal izango dugu elgoibartarrok.

Partxisa eta tribiala uztartzen ditu *Elgoibar KOLoretan* mahai-jokoak. Partxisa dago jokoaren oinarrian, baina fitxak mugitzeko Elgoibarren gaineko galderei erantzun behar zaie. 900 galdera-erantzun dauzka mahai-jokoak (sei

gai edo koloretan banatuta), eta galdera guztiak dira gure herriaren gainekoak. Beraz, zenbat eta hobeto ezagutu Elgoibar, orduan eta azkarrago iritsiko gara helmugara.

Mahai-jokoa Elgoibarko Izarrak prestatu du, baina jende askok hartu du parte proiektuan. Aurrekontua ere handia izan da, eta, oraingoan ere, hainbat erakunde eta enpresaren laguntza jaso du Elkarteak proiektua finantzatu ahal izateko.

Negua gainera jausiko zaigu laster eta, aspaldian, hotza eta euria dira nagusi. Behar bada egun aproposak dira mahai-jokoa erosi eta, epel-epeletan, etxekoekin edo lagun artean disfrutatzeke. Euskal esaera zahar batek jokoa ez dela errenta dion arren, kasu honetan denok irabaziko dugu.





## Zenbat lagunek joka dezakete?

Gutxienez bi jokalarik jokatu behar dute; eta, gehienez, seik (taldeka ere joka daiteke). Jokalari bakoitzak kolore bat aukeratu behar du, eta kolore horretako bi fitxekin jokatu du.

## Edozeinek joka al dezake?

Mahai-jokoaren kaxan 14 urtetik gorakoentzat dela jartzzen du, adina nolabait mugatzearren, baina 14 urtetik beherakoek ere joka eta goza dezakete, nagusi bat lagun hartuta.

## Non eros daiteke mahai-jokoa? Zenbat balio du?

Elgoibarko Izarra, Ubitarte 4.  
 BAREN astekaria, Nafarroa Plaza, 4.  
 Pitxintxu, San Frantzisko, 27  
 Ize liburudenda, Errosario, 16

**Prezioa: 32 € (26 € Elgoibarko Izarrako bazkideek)**

Nor izendatu zuten Elgoibarko seme koton gara industriaren abuzindia (zateagatik)?  
 Eulogio Estarza  
 Bernardo Ezenarro  
 Jose Leon

Baizola amaren bost pista grabatu dira 2006an daiko balaan. Zer izen du dekoak?  
 Faboren 02  
 Masedez 01  
 Amen 03

Bihotzetan lotutako zer izen du Elgoibarko antzerki-taldea batak?  
 Bihotzetak  
 Tzapata  
 Bihotzera

Zer postu karta zuten Juan Mugertzak Behotla-Donostia probaren estreinako edizian? (Irabazi) egia zuten  
 2 postua  
 3 postua

Zer baserrian (jau zuten) 1986an Antonio Amalaga mediku eta zuzenari opeztua?  
 Amalaga  
 Amalaga  
 Amalagazgin

Zein da El Daxio Vasco egunkariko Elgoibarko berriemaketa 1985tik hona?  
 Aitor Zubeldi  
 Aitor Zubeldi  
 Aitor Zubeldi

Zer urtean /te/ zuten SIGMA josteko makinak lantzen?  
 1991ean  
 1995ean  
 1998an

Zer musika-taldea sortu zuten 1969an Pato Garcia, Gabi Agirretxe eta Luis M. Arakistain eta Alfonso Guñe?  
 Kaska  
 Expresion Sonora  
 Funa Sonora

Elgoibarko zein idazleak idatzi ditu Ertolenak eta Asteak? Zein idazleak idatzi ditu Ertolenak eta Asteak?  
 Gaiñon Gariñak  
 Aitor Ugarteburak  
 Harriet Etxebarriak

Zein da Sento eskubaloi-taldea jokalarien gero-oihuz?  
 Txorromorropikof  
 Surokaleak  
 Kukilmon

Ennenaren baserri-aurzikoa zer baserri ama zen 1988an?  
 Musiko  
 Makroa  
 Artaxo

Josu Mujika eta Edurne Lasak ETRko zer taldearekin hartu zuten parte?  
 Jaun ta Jauben  
 Goenkale  
 Bataeremendin

Elgoibarko zein enpresatan egiten ziren erreboteak eta pisak?  
 Arletan  
 Kamen-en  
 Gabillonan

Zein da Joan Urizarren taldea Surose musika-taldea?  
 Pato Zubeldi  
 Aitor Etxarraz  
 Jon Gurmuzaga

Zer liburuaren argitaratzen du Harriet Nazcaerteko Forakora Joseba?  
 Euzkoan  
 Uztokian  
 Abuztuan

Iztar Gurmuzaga eta El Iztar taldearen futbolariak zein taldeekin jokatu zuten?  
 Mendianekin  
 Futbolariekin  
 Eskubaloiarekin

Surose taldearen aurzikoa zer baserri ama zen nekazaritza enpresan?  
 Txarunen  
 Berdunen  
 Makroan

Zeinek idatzi duzue Elgoibarko Heizea taldea?  
 Emakumeekin  
 Etxearekin  
 Etxekin



## “Zenbat eta gehiago jokatu, orduan eta hobeto ezagutuko dugu Elgoibar”

**Imanol, Elgoibarko Izarrako dinamizatzailea, izan da Elgoibar KOLORETAN mahai-jokoa egiteko lanak koordinatu dituena. Uste baino lan gehiago eman dio proiektuak, baina gustura dago emaitzarekin. Proiektuan jende askok parte hartu duela nabarmendu du Imanolek eta, bere ustez, estimazio polita izango du jendearen artean. Hori da behintzat bere desioa.**

### Zelan sortu zen mahai-jokoaren ideia, Imanol?

Idea ez da gurea. Eibarren mahai-joko bat prestatzen zihardutela esan zigun Elgoibarko Izarrako bazkide batek (Maite Rementeriak), eta ideia asko gustatu zitzaigun. Dozena bat lagunengatik jaso genituen ezertan hasi aurretik, eta denek esan ziguten aurrera egiteko. Beraz, ideia cibartarrei kopiatutakoa da, nahiz eta haiek eta guk egin ditugun mahai-jokoak oso diferenteak diren.

### Zertarako prestatu duzue mahai-jokoa? Zer helburu dauka?

Helburuak, batez ere, bi dira: lehen helburua, jendeak ondo pasatzea da; mahai-joko bat denez, lagunekin edo etxekoekin ondo pasatzeko produktu bat da. Bigarren helburua, berriz, jokoa dihardugun bitartean gure herria hobeto ezagutzea da. Izan ere, mahai-jokoaren oinarrian 900 galdera-erantzun daude, eta galdera hauetako bakoitzak Elgoibar hobeto ezagutzeko ate bat zabalduko digu.

### Asko kosta al zaizue galdera-erantzunak prestatzea?

Horixe izan da lanik neketsuena, dudarik gabe. Mahai-jokoaren dinamika asmatzeko eta tableroa diseinatzeak ere eman ziguten buruko min bat baino gehiago, baina lanik gogorrena 900 galdera-erantzunak prestatzea izan da. Elgoibar sei sektore edo koloretan banatu ondoren, jende eta liburu asko pasa da gure aurretik. Bagenekien Elgoibar 900 galderatan biltzea ezinezkoa izango zela, baina ahalik eta zatirik handiena harrapatu nahi genuen, eta horrek lan handia eman digu.

### Galderak errez asmatzeko modukoak al dira?

Zailtasun-maila diferenteak sartzen saiatu gara. Hala ere, galdera bat erreza edo zaila den esatea oso erlatibo da, ezta? Zuretzat oso zaila dena, niretzat erreza izan daiteke, eta alderantziz. Dena den, ia galdera gehienetan hiru erantzun jarri ditugu aukeran, laguntza moduan, eta zuzena zein den asmatu behar da. Beraz, inor ere ez da isilik geratuko da galdera baten aurrean. Gure mahai-jokoarekin disfrutatzeko ez da Elgoibar goitik behera ezagutu behar, eta, gainera, zenbat eta gehiago jokatu, orduan eta hobeto ezagutuko dugu gure herria.

### Mahai-jokoa originala da, ezta? Zuek asmatu duzue?

Bai, ez dugu uste horrelako beste mahai-jokorik dagoenik merkatuan. Ezagunak diren bi mahai-joko hartu ditugu (partxisa



Argazkia: Javi Leon

eta tribiala), biak nahastu eta mahai-joko berria asmatu dugu. Jokoaren oinarrian denok ezagutzen dugun partxis jokoa dago, baina, kasu honetan, suertea ez da nahikoa izango jokoa irabazteko. Elgoibar ezagutzen dutenek abantaila izango dute.

### Mahai-jokoak, estetikari dagokionez, itxura ona dauka.

Bai, kurioso geratu dela uste dut nik ere, eta hori Ibon Arregiri zor diogu. Diseinu lanak Ibonek egin ditu, eta, honek ere, ordu asko sartu behar izan ditu ordenadore aurrean. Dena sortu eta asmatu behar izan dugu (tableroa, kaxa, galdera-fitxak, ...), eta imajinarioari estutu edarra eman dio Ibonek.

### Amaitzeko, zelako harrera espero duzue jendearen partetik?

Jendearen gustukoa izatea nahiko genuke, baina hori geroak esango digu. Elgoibarrin oso lotuta dagoen mahai-jokoa da, eta horrelako produktuek badaukate hitzez azaldu ezin den zerbait. Guk gure onena eman dugu, baina jendeak esan beharko du gure esfortzuak merezi izan duen ala ez.

**Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA****Metala, 70eko hamarkadako rocka, pop-rocka eta post-rocka entzungai**

Lehiaketa sortu zenetik lau urte pasa dira eta tarte horretan talde berri asko sortu dira. Ez hori bakarrik, lehiaketaren izena handituz doa, eta Debabarrenetik eta Durangaldetik ere eskaintza interesgarriak etorri zaizkigu. Horrek guztiak lehiaketaren maila igo du. Aretxabaletako Igor San Juan bigarren aldiz ikusi ahal izango dugu Espaloia Kafe Antzokian. Kantuak etxean bakardadean idatzi eta konposatzen dituen arren, zuzenekoetarako musikari asko batzen ditu inguruan. Mery May izen artistikoa daukan Maria Fagan arrasatearra ere bigarren aldiz igoko da Elgetako agertokira; baina oraingoan Foxy Boxxi talde rockeroaren frontwoman moduan. Beste biak Eibar eta Ondarroako kideak dituen Norman postpunk taldea eta Durangoko Hilbete metal-zaleen taldea izango dira, biak hala biak talde gazteak eta biek euskaraz abesten dute.



**Foxy Boxxi** (Arrasate)  
Arrasateko laukote horrek rocka darama zainetan, eta 2005ean taldeasortu zutenetik euren bidea egiten dihardute poliki-poliki. Ingelesez abesten dute eta rock-and-rolla egiten dute, gitarra eta melodia indartsuekin aberastuta. Taldean autoekoiztutako lana aurkezten dabil.



**Igor San Juan** (Aretxabaleta) Ilgor San Juan Xixtor-ek urte ugari darama etxean abestiak idazten eta gitarrarekin melodiak konposatzen. Pop-rocka egiten du, euskaraz abestuta, eta batzuetan, abesteko moduagatik Txuma Murugarren gogora ekartzen du.



**Norman** (Eibar-Ondarroa)  
Euskaraz abestutako post-rocka egiten dute, gitarra doinuetan Dead Kennedys taldearen aztertarna antzematen uzten duena, baina, modu berean, erritmo aldaketetan Minutemen edota M-ak ere gogora ekartzen duena.



**Hilbete** (Durango)  
Taldea 2008ko udaberrian sortu zuten. Enekok (ahotsa eta gitarra), Yeraik (bateria) eta Asierrek (baxua eta koroak) metalaren eta rock alternatiboaren arteko kantuak egiten dituzte, euskaraz, eta melodia eta indarra, biak, bere tamainan uztertuta.

**KONTZERTUA**

Gaur, barixakua. 22:30. Elgetako Espaloia. 5 euro (Gazte kutxa, 3 euro).

www.danbaka.com

**DANBAKA** ))))

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIEN A DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA




LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



# IRENE LEAL

## 10 URTE

Une honetatik gabonetako oporren zain dauden horietakoa zara?

Ez, oraindik ez. Geroago.

Zein irakasgai gustatzen zaizu gehien?

Ingelesa.

Ona zara ala?

Bai.

Eta zein ez duzu gustuko?

Matematikak.

Esan liteke ikasle fina zarela?

Bai.

Eta bromazalea?

Bueno..., ez hainbeste.

Lagunei-eta ez diezu adarrak jotzen?

Ez asko.

Zein da zure afiziorik handiena?

Dantza egitea eta abestea.

Eta zaletasuna praktikan jartzen duzu?

Abestea bai, baina dantzarena ez hainbeste.

Abeslaririk gustukoena zein duzu?

La Oreja de Van Gogh eta Amaia Montero. La Oreja de Van Gogh berrikoa, ez hainbeste. Taldearen hasierako kantak abesten ditut.

Iria bakarti batera zer eramango zenuke?

Arropa, jolasak eta erloju bat.

Zer eduki behar du lagun on batek?

Atsegina izatea eta behar duzunean laguntzea.

Zeri diozu beldurra?

Gauetz kalean argia joateari. Atzo joan egin zen: kanpoan afaldu behar nuen eta jaitsi behar izan nituen bi pisu, gero berriz igo, eta gero berriz bost igo, ia-ia ezer ikusi gabe.

Zure ametsa zein da?

Abeslari famatua izatea.



## Gabonak



### Negulekuak

Atxutxiamaiakak umeentzako negulekuak antolatu ditu Gabonetarako. HHko eta LHko 1. eta 2. mailakoek jolasak eta tailerrak izango dituzte; 3.etik 6. mailara artekoek, berriz, irteerak. Izene-matea eta informazioa, Elgoibarko Izarran (Ubitarte, 4), abenduaren 16a baino lehen. Tel.: 943 741 626 (Ainara).



## ZER EGINGO ZENUKE IRAKASLEA BAZINA?

### Jokin Arroyo

8 urte

Biderketak eta euskara etxerako bidali. Gaizki portatzeagatik 40 aldiz "ez dut egingo hori" kopiatu arazi.



### Joan Rodriguez

8 urte

Inguruko klasea eta erlijio-koa kendu. Jolastordu luzeagoa jarri eta plastilinarekin gehiago jolastu.



### Alberto Liebana

6 urte

Gaizki portatu ezkeru, beraiekin haserretu eta etxerako lanak bidali eta kopiak eginarazi.



### Iman Adou

8 urte

Gaizki portatzen badira, kopiak egitera. Ondo portatzen badira, jolastu eta plastilinarekin ibiltzera.



### Pablo Luis

9 urte

Klasera beranduago etorri, 9:00etan. Bestela dagoen bezala lagako nuke dena. Udan jai gehiago.



### Esteban Leal

9 urte

Ez nuke ezer aldatuko. jatorra izango nintzateke: ondo portatzen direnei gozokiak.



## Mendia

### Herri eskolakoak Finalista Egunean

Eskolarteko mendi lehiaketaren Finalista Egunean izan ziren Herri Eskolako ikasleak. Ekitaldia Orion izan zen. Eguraldia lagun izan zuten, ekitaldi arrakastatsua izan zen. Gipuzkoako 2.000 ikasle baino gehiago hurbildu ziren Foru Aldundiak antolatutako ekitaldira. Kukuarrri edo Talaimendi izeneko mendira igo ondoren, Orioko plazan diplomak banatu eta opari batzuk zozketatu zituzten.

Elgoibarko Herri Eskolako finalistak honakoak izan ziren: Iria Andrade, Tamara Molina, Andrea Arrieta, Amaia Palacios, Iosu Palacios, Maria Arrieta, Aitor Iranzo, Markel Zabala eta Asier Zabaleta.



Kukuarrriko gailurrean Getariko arratoia atzean dutela.

## ‘Hari gaineo kabareta’ antzezlan ikusi ahal izango da domekan, Herriko Antzokian

Edozein adinetako jendearentzako ikuskizuna da eta 16:30ean hasiko da

**H**erriko Antzokian *Hari gaineo gabareta* antzezlan ikusi ahal izango da etzi, domeka, 16:30ean. Txotxongilo handi eta dibertigarrien kontzertu bat da; trikimaiz eta umorez beterikoa. Edozein adinetako jendearentzako izango da. Zahar eta gazteek gozatzeko moduko ikuskizuna da, Alemaniako The Fifth Wheel taldeak eskainia. 45 minutuko iraupena dauka eta sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai leihatilan.

### Hainbat herrialde eta garai

Hainbat herrialde eta garaitara errotatzen dute ikuslea *Hari gaineo kabareta* lanare-

kin: kobazuloko gizonen antzinako dantza errituak, xamana suarekin errituak egiten, abeslari espainiarra, 30ko hamarkadako dantzari beltz amerikarra...

### Saio motzetik, luze bat

The Fifth Wheel konpainia independentea 2004tik existitzen da. Hasieran harizko txotxongiloekin bakarrik egiten zuten lana, eta musika saio laburrak egiten zituzten. Aurrerago, saio motz guztiak batu eta *Hari gaineo kabareta* saioa sortu zuten. Elgoibarren egongo dira etzi, baina, aurrez, Europa osoan, Turkian eta Hego Korean ere aritu dira.



### Euskararen Nazioarteko Egunean, ‘Goazen’ filma Herriko Antzokian

Datorren astean, abenduaren 3an, Euskararen Eguna izanik, *Goazen* euskarazko film musikalaren emanaldi berezia egingo dute arratsaldeko 18:30ean Herriko Antzokian. Pelikularen emanaldirako sarrerak euro 1en truke salduko dituzte. Apaiz batzuek zuzendutako diziplina zorrotzeko udaleku batean gertatzen da istorioa. Musika eta koreografiak oinarri dituela, udalekuko hamasei urteko neska mutilen abenturak biltzen ditu musikalak. Filmeko koreografiak Josu Mujika elgoibartarrarenak dira; aktore lana ere egiten du.

**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
Xizillon, 2 - 3. sotoa - 943 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**murrplastik**

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murrplastik SL - Ubarburu 76 - Pabillora 34, Poligono 27  
20014 Donostia - Telefonoa 943 44 48 37 - Faxa 943 47 28 95

**BUKATU**  
ECANIZADOS S.COOP

OLASO Poligono Industrial - Olasope kale, 6  
66 66a - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98  
20870 ELGOIBAR  
E-posta: [bukatu@bukatu.es](mailto:bukatu@bukatu.es) - Htt: [www.bukatu.es](http://www.bukatu.es)

# Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako ligaxka martxan dago

Aitor Asenjok bigarren postua lortu du lehen kanporaketan

J oan den domekan hasi zuten Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako ligaxka Azkoitiko Baztartxo aretoan. Neska eta mutilek banatuta hartuko dute parte eta, momentuz, mutilak ari dira jokatzeko. A mailan zazpi eta hamaika urte bitartekoak ariko dira, eta B mailan hamaika eta hamabost urte bitartekoak. Parte hartzaileen artean Elgoibarko ordezkariek daude.

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako Aitor Asenjok hasiera bikaina egin du. Hamabi urte dituen, B mailan ari da, eta bigarren postua lortu zuen lehen kanporaketan. Hurrengo hitzordua Legazpian edukiko du abenduaren 14an.

Nesken txanda urtarrilean hasiko da, eta hor ere elgoibartarrek hartuko dute parte: hamabost lagunek guztira.



## Emakumezkoek egindako bi film emango ditu Ongarri zine-klubak abenduan



Abenduan zehar, emakumeek egindako bi film ikusi ahal izango dira Elgoibarren, Ongarri zine-klubak antolatuta. Eguenetan izango dira bi saioak: hilaren 4an izango da lehena, eta hilaren 11n bigarrena. Bi pelikulak, gainera, emakumezkoek eginak izateaz gain, bai publikoaren aldetik eta baita kritikaren aldetik ere, balorazio ona jasotakoak dira. Datorren egunean *Lo mejor de mí* da emango dute. Espainian filmatu dute aurten, eta Roser Aguilerrera da. Hurrengo filma *Nevando voy* izango da. Bigarren hori ere Espainian filmatu dute aurten, eta bi dira zuzendariak: Candela Figueira eta Maitena Muruzabal. Gainera, Muruzabal Elgoibarrera etorriko da, emanaldiaren egunean. Emanaldiak 21:30ean izango dira Herriko Antzokian.

## Zuhaitz aisialdi taldearekin Bilboko gabonetako haur-parkera

Gabonak bertan daude, eta Zuhaitz aisialdi taldea hasi da opor horietarako gaztetxoentzako plana prestatzen. Bilboko gabonetako haur-parkera irteera antolatu dute abenduaren 22rako. Autobusez egingo dute bidaia eta Plaza handitik aterako dira 09:30ean.

Egun guztia Bilbon egin ondoren, 19:30ean bueltatuko dira haurrak txankakuako geltokira.

Bakoitzak bere janaria eta hamabi euro eroan beharko ditu. Izena eman nahi duenak abenduaren 12a baino lehen deitu beharko du ondoko telefono zenbakira: 687 515 962.

## Kentuckytik zuzenean, gospel kontzertua

The Northern Kentucky Brotherhood Singers taldeak gospel emanaldia egingo dute abenduaren 19an, 22:15ean, Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez erosi ahal izango dira Kultur Etxean.

Northern Kentucky Brotherhood Singers abesbatzak *a capella* eskaintzen ditu gospel tradizionaleko abestiak. Euren errepertorioan *Go Down Moses* edo *Swing Low Sweet Chariot* kantuak tartekatzen dituzte, eta eskenatoki gainean agertzen direnean interpretazioaren adierazkortasunari nortasun sendoa gehitzen diote.

Gaur egun, bost gizonezko osatzen dute abesbatza eta euren errepertorioa osatzeko The Dixie Hummingbirds, The Five Blind Boys eta The Fairfield Four taldeen eragin jaso dute.

## 'Cincuentones' antzezlanaren abenduaren 12an

Abenduaren 12an, 22:15ean, Julio Perugorria produkzioak taldearen *Cincuentones* antzezlanaren ikusi ahal izango da Herriko Antzokian. Sarrerak Kultur Etxean erosi ahal izango dira.

## Alkortako Igoeran errekor berria ezarri du Joseba Plaza markinarrak

Plazak 4,7 kilometro 20 minutu eta 43 segundotan egin du

**J**osu Arregi azpeitiarrak estreinako edizioan ezarritako marka (21'12") hobetu du Joseba Plazak Alkortako III. igoeran. Karakateko azken igoeran hirugarren postuan sailkatu zen markinarrak 20 minutu eta 43 segundo behar izan zituen 4,7 kilometroko igoeran. Iazkoa errepikatuz, giro ezin bustiagoa aurkitu zuten parte hartu zuten 25 antxintxikariek (*Txiki* txakurra barne). Bigarren postuan Mikel Albeniz donostiarra ailegatu zen, irabazlearengandik 51 segundora. Haritz Arrieta elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan eta Jon Larrañaga izan zen lehen mendarorrra, sailkapeneko zazpigarren postuan. Argazki guztiak eta bideoak [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net) atarian ikus daitezke.



### Sailkapena

1. Joseba Plaza (Markina-Xemein)	20:43
2. Mikel Albeniz (Donostia)	21:34
3. Haritz Arrieta	22:54
4. Unai Narbaiza (Eibar)	23:33
5. Igor Urionabarrenetxea (Aulesti)	23:51
6. Iñaki Gil (Deba)	23:54
7. Jon Larrañaga (Mendaro)	23:57
8. Igor Rey (Mendaro)	24:08
9. Gotzon Zulaika (Mendaro)	24:55
10. Garikoitz Uzkudun (Azpeitia)	25:09
11. Aitor Osoro	25:20
12. Eduardo Uribe (Mendaro)	25:24
13. Mikel Zenarruzabeitia (Aulesti)	26:18
14. Illart Urain (Mendaro)	27:18
15. Juan Mari Ansa	29:00
16. Roberto Osoro (Mendaro)	29:02
17. Ignacio Perez	29:30
18. Txiki (Mendaro)	29:32
19. Jurdan Ezenarro (Mendaro)	29:36
20. Andoni Armendia	30:12
21. Aitzol Ezenarro (Mendaro)	30:28
22. Ibon Villanueva	31:30
23. Israel Soto (Mendaro)	32:44
24. Aitzol Urain (Mendaro)	33:59
25. Xeber Loiola (Mendaro)	38:06



### ESKERTZA


## ASIER ARANBERRI GUEREÑO



2008ko maiatzaren 31ean hil zen, 23 urte zituela. Asier Aranberri Guereñoren amak eta familiak bihotzez eskertzen dituzte Elgoibartik jasotako doluminak.

Esker mila Asierren Elgoibarko lagun eta adiskide min guztiei.

*Asier, beti eramango zaitugu gure bihotzean*





# Euskadiko Ehiza Xeheko txapelketatik zilarra lortuta bueltan

Juaristik emakumezkoetan eta Galindok junior mailan

**E**uskadiko Ehiza Xeheko Txapelketan zilarrezko dominak eskuratu dituzte bi elgoibartarrek: Jugatx Juaristik emakumezkoetan eta Jonathan Galindok junior mailan. Zanbranan (Araba) jokatu zen txapelketa. Bi elgoibartarrek parte hartu dute aurten, La Union ehiza eta arrantza elkartearen izenean. Egun ona izan zuten biek eta garaipenetik oso gertu geratu ziren. Batetik, Jonathan Galindok, junior mailan, bigarren postua eskuratu zuen bi eper ehizatzea lortu eta gero. Bestetik, emakumezkoen mailan, bigarren postua lortu zuen Jugatx Juaristik. Faisai bat ehitatu zuen Juaristik.



## Urkora irteera egingo dute bihar, Morkaikokoek

Morkaiko mendi taldeak antolatuta Urko mendira bost ordu inguruko irteera egingo dute bihar, 8:30ean plazan hasita. Aubixa gainean dagoen Armazio baserri-joango dira. Gero, mendi bidea hartu eta Kalamuako magaleraino joango dira eta nahi duenak tontorrera joan ahal izango du. Usartzatik Urkora joango dira, eta, amaitzeko, Ermura jaitsiko dira bueltako trena hartzeko.

## Samuel Sanchez txapeldun olinpikoarekin, Sallobenten barrena

Eguraldi umelari aurre eginez tropeltxo osatzea lortu zuten domekan (azaroak 23) Samuel Sanchez txapeldun olinpikoa eta Euskaltel-Euskadi taldeko Aitor Galdos eta Markel Irizar txirrindulari profesionalarekin batera Ermuaran-Sallobente ibilbide gidatua egitera animatu ziren BTT zaleek. Amaieran, txapeldun olinpikoaren sinadurak jaso zituzten gazteenek Ikastolako frontoian.



## EMAITZAK

### ESKUBALOIA

Askartza **23** – Tecnifuelle Elgo. **17** (Seni.nes.)  
Cometel Elgo. **20** – Aloña Mendi **20** (Jub.nes.)  
IMH Elgo. **25** – Aloña Mendi **17** (Kad.nes.)  
Alkorta Elgo. **26** – Donibane **22** (Seni.mut.)  
Pneumax Elgo. **27** – Euskalduna Zara. **34** (Kad.mut.)  
Urola **24** – Astigarraga Elgo. **16** (Inf.nes.)  
Arrate **7** – Aterpe Elgo. **18** (Inf.nes.)  
Lili Elgo. **18** – Zarautz **18** (Inf.nes.)  
Bankoa Elgo. **35** – Zarautz **12** (Inf.mut.)  
Bergara **16** – Txarriduna Elgo. **28** (Inf.mut.)

### ARETO FUTBOLA

Kenci **2** – Alcla Dosanpor **3** (Nazional B)  
Elgoibar **3** – Aloña Mendi **6** (Jub.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 29

**12:30** Elgoibar – Bergara (Txik.)  
**16:30** Elgoibar – Gernika (Haundi)  
**19:00** Elgoibar – Arizmendi (Nesk.)

#### Domeka, 30

**10:30** Hamaikak Bat – Aloña Mendi (Ale.)  
**10:30** Bergara – Lagun Onak (Ale.)  
**11:30** Arrasate – Aretxabaleta (Ale.)  
**11:30** Elgoibar – Eibar (Ale.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

#### Barikua, 24

**22:00** Lagunak – Zazpi Iturri (Sen.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 29

**09:00** Aterpe – Aloña Mendi (Inf. nes.)  
**10:15** Txarriduna – Arrate (Inf. mut.)  
**11:30** Pneumax – Bergara (Kad. mut.)  
**16:00** IMH – Urdaibai (Kad. nes.)  
**17:30** Cometel – Aloña Mendi (Jub. nes.)  
**19:00** Tecnifuelle – Kukullaga (Sen. nes.)  
**Domeka, 30**  
**11:00** Lili Elgo. – Astigarraga (Inf. nes.)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

#### Domeka, 30

**12:30** Xagua – Ordizia (Sen. mut.)

### SASKIBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 29

**13:00** Ambolo – Lek Almen (Inf. nes.)

**LANA**

**ESKAERA**

• Emakumea lanerako prest, plantxa egiteko edo etxe-ko lanak egiteko. Goiz edo arratsaldez.

☎ 627 799 609

• Mutila lanerako prest, zamalanetarako, garbiketa, igeltseritza edo edozertarako prest.

☎ 660 213 652

• Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Gauzez edo asteburuetan. ☎ 646 821 678

• Emakume euskalduna, nagusiak zaintzeko prest, esperientziarekin. Autoa dauka. ☎ 626 438 248

• Neska gaztea logela baten bila Elgoibarren.

☎ 943 743 505

• Neska euskalduna nagusiak edo umeak zainduko lituzke (esperientzi handia), garbiketa lanak egingo lituzke. ☎ 676 876 408

• Andre euskaldun bat esperientzia handiarekin prest pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ 943 744 433

• Jatetxerako sukaldaria behar da. Esperientzia.

☎ 943 741 230

• Neska lanerako prest, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko. ☎ 678 939 382

• Pertsona lanerako prest, nagusiak zainduz edo etxe-ko lanak eginez. Esperientziarekin eta gomendioak.

☎ 686 521 598

• Adimeko pertsonak zaindu edo etxe-ko lanak egingo nituzke, arratsaldez. ☎ 943 743 251

• Emakumea lanerako prest, goizeko 10:30etik arratsaldeko 18:00etara. Haur eta nagusien zainketan edo garbiketetan. ☎ 680 808 125

• Emakumea lanerako prest, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, haur edo nagusiak zaintzen, garbiketa edo taberna batean. ☎ 699 813 826

• Neska, lanerako prest, esperientziarekin pinturan eta oholeztatzean. ☎ 658 164 787

• Neska gaztea, zerbitzari lanetarako (esperientziarekin), garbiketerako edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 617 056 828

• Neska, lanerako prest nagusiak edo haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen. ☎ 629 615 302

**ESKAITZA**

• D.B.H.3.mailako ikasle batek euskarazko klase partikularrak behar ditu, interesaturik dagoenak dei dezala.

☎ 687 734 656

**ETXEBIZITZA**

**ALOKAIRUA**

• Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ 658 379 393

• Alokairuan pisua bilatzen dut Elgoibarren, 3 edo 2 logelarekin. ☎ 696 246 962

**LOKALAK**

• Marradun garajea alokatzen da Leku Ederren

☎ 943 741 522

**MOTORRA**

• Salgai Nissan Terrano II 2,7 TDI Sport. Oso egoera onean dago. 2001eko abendukoa.

☎ 699 826 609 / 659 575 487

• Chevrolet Tacuma, 3 urte ditu, gris-urdinxka, 32.000km. Prezio onean.

☎ 943 744 500 / 686 052 665

**BESTELAKOAK**

• Etxetresna elektrikoak, etxe-ko altzariak, oheko arropak eta gortinak behar dira.

☎ 676 444 171

• Lur zati bat saltzen da. Azkaratetik Azkoitira bidean, pistaz ondo inguraturikoa, bi hektarea ingurukoa.

☎ 671 977 171

**ABISUAK**

• Giltza batzuk aurkitu ziren igandean Urasandin, Cris-taleria Elgoibarresa inguruan. Giltzak udaltzaingoa daude.

• Azaroaren 7an, ostirala, magia ikuskizunaren ondoren, norbaitek bere txamarra hartu beharrean, nahi gabe Ludotekatik beste ume batena hartu zuen. Txamarrak berdinak dira; euritako beltz luzeak eta txanoan ilearekin. Ludotekan gelditu dena 9-10 tamainakoa da eta eramandakoa 5 tamainakoa. Ludotekan bertan trukea egitea edo telefono zenbakira deitzea eskertuko genuke. ☎ 699 843 269 / 943 748 883 (Ludoteka)

**OHARRA:**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira

BARREn eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 74 37 04

**MODULOAK**

Lana / Bestelakoak

*Astebete : 5 euro*

*2 aste : 8 euro*

*3 aste : 10 euro*

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

*Astebete : 10 euro*

*2 aste : 17 euro*

*3 aste : 25 euro*

**OHARRA**


Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro . Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

**09** **GIDA KOMERTZIALA 2009**

**lazko gidan zure negozioaren telefonoa agertu ez bazen, deitu zenbaki honetara: 943 74 37 04 edo helbide honetara idatzi: barren.publi@elgoibarkoizarra.com**



• Zorionak **Nagore!**. Abenduaren 1ean hiru urte egingo dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez eta jarraitu orain arte bezain alai.



• Zorionak **Borja**, sei urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoan eta anaia Alexen partez




• Zorionak **Manex!** Jarraitu urte honetan bezala gure bizitzak alaitzen. Aitatzxo eta amatxo.




• **Nahiatxo**, primeran pasagenuen zeure egunean. Maite zaitugu!




• Basoko **belozraptor** azkarrenari, zorionak. Ondo pasatu bihar!



• Zorionak, **Oxel**, igandean bi urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, tio **Juanan**, bihar 22 urte egingo dituzulako. Ondo pasa Andoni, Laren eta Elenaren partez.



• Zorionak, **Hodei**, bihar lau urte egingo dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Aner, Maider, Patxi, Julen eta Markelen partez.



• Zorionak, **David**, bihar bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Lorene lehen-gusinarean partez.



• **Nerea**, mila kilo zorion atzo zazpi urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Almar**, azaroaren 27an zazpi urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen eta anaia Manexen partez.



• Zorionak, **Sofia**, ostegunean zortzi urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, aittita eta amamaren partez.



• Zorionak, **Ibai**, domekan bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **txapel-dun**, domekan bi urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Unai**, araba Garazi, anaia Elur, guraso, lehen-gusu eta amamaren partez.



• Zorionak, aittita **Jose**, 95 urte egin dituzulako. Alba, Nerea eta amama Asunen partez.




• Zorionak, **hirukote!** azaroan urteak egin dituzuelako. Muxu asko ikastolako lagun partez!

## OSPAKIZUNAK IKASLE EGUNA



Zorionak euskal ikasleria! Eta bereziki, zorionak pasagenuen larunbatean, Ikasle Eguna hurbildutako elgoibartar denei. Ikasle Abertzaleak-en 20 urteak denok batera ospatu, eta aurrerantzean ere, gure hezigunee-tako korridoretan borrokan jarraitzeko indarra erakutsi genuelako!.



• Zorionak, **bikote**, zuen bigarren eta bosgarren urtebetzean. Muxu asko familiako guztien partez.



• Zorionak, **Koldo eta Nora**, zuen urtebetzean! Muxu asko gurasoen eta bereziki, Ibonen partez.

**OKINDEGIA**

30 domeka **DOÑA MERCEDES**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 28 Etxeberria (Errosario)
- 29 Yudego  
(\*Goizez Ibañez)
- 30** Ibañez
- 1 Garitaonandia
- 2 Etxeberria (Santa Ana)
- 3 Fernandez
- 4 Yudego
- 5 Zabaleta

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**



Egin klik

[www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)

**hitzaldiak**

**28 barixakua**

**18:00** Nola egin jostailu egokia aukeratzeko?

Jostailu erakusketaren barnean, Maite San Vicentek hitzaldia eskainiko du, jostailu egokia aukeratzeko gomendioak emanez. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**erakusketak**

**30 domeka**

**11:00** Jostailu erakusketa

Atxutxiamaikak antolatutako jostailu erakusketa bisitatzeko azken eguna. Kultur Etxean.

**antzerkia**

**28 barixakua**

**22:15** Jokoaut

Pikor Teatroak aurkeztuko du Herriko Antzokian.

**30 domeka**

**16:30** Txotxongiloak

Cabaret sobre hilos ikuskizuna izango da Herriko Antzokian.



**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 28**

Topagunea 17:00

**ZAPATUA 29**

Kartetara irteera 17:30ean  
Txankakuako zubitik irtengo gara

**DOMEKA 30**

Bingoa 17:00

**MARTITZENA 2**

Eskulanak: Gabon Zahar feriarako prestaketa. 17:00

**EGUAZTENA 3**

Txoko pribatua 17:00

**EGUENA 4**

Ordenagailuak: 17:00



**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 28**

Jostailuen erakusketa 17:15

**ASTELEHENA 1**

Euskaraokea 17:00

**MARTITZENA 2**

Ludotekako futbolin liga 17:30

**EGUAZTENA 3**

Eskulanak 16:30

**EGUENA 4**

Jolas librea 16:30



**«El niño con el pijama de rayas»**

29, zapatua: 19:00/22:15

30, domeka: 19:00

1, astelehena: 21:30

AEB, 2008. Iraupena: 94 minutu. Zuzendaria: Mark Herman. Aktoreak: Asa Butterfield, David Thewlis, Vera Farniga, Rupert Friend. Berlin, 1942. urtea. Brunok bederatzi urte ditu, eta haren aita sol-

dadu nazia da. Kontzentrazio esparru baten komandate izendatu dute aita, eta handik gertu bizi izango dira aurrerantzean. Bruno txikiak kontzentrazio esparruan dagoen mutiko judu bat ezagutuko du.

 **pesteak**

**29 zapatua**

**9:00 Azken zapatuko feria**

Baserriko produktuak jarriko dira salgai Nafarroa Plazan. 11:00etan ganaduzaleak etorriko dira animaliekin. Trikitilariak alaituko dute giroa.

**11:00 Magosto Eguna**

Galiza Etxekoek gaztainak banatuko dituzte Nafarroa Plazan.



**Gure gomendioa**

**Jokoaut**

**Gaur, barixakua, 22:15ean**

Udaleko Gazteria eta Berdintasun sailek antolatuta, Jokoaut antzezlanak ikusi ahal izango da gaur gauean, Herriko Antzokian. Bulling fenomenoari buruzko antzezlanak da, hau da, gazteek eskolan jasaten dituzten erasoak hartzen dituzten oinarri. Pikor teatroak aurkeztuko du antzezlanak.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

**Arte eta literatura**

Norentzat: Interesatuentzat  
 Antolatzailea: Haizea emakume taldea  
 Hasiera data: Kotsultatu  
 Non: Elgoibarren  
 Informazio gehiago: Pitxintxun

**Sukaldaritza begetarianoa**

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz  
 Noiz: Abenduaren 1etik 15era.  
 Non: Elgoibarren  
 Informazio gehiago: 943 741 378/627 087 180

**Ipuin kontaketa ikastaroa**

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Euskaraz  
 Noiz: Abenduaren 13an.  
 Non: Mutrikun  
 Informazio gehiago: 943 607 036

**Web diseinua**

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Gazteleraz  
 Noiz: Abenduaren 9tik 18ra.  
 Non: Elgoibarren  
 Izenemate bukaera: Abenduak 9

**Internet zuretzat!**

Norentzat: 55 urtetik gorakoentzat  
 Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz  
 Noiz: Abenduaren 2tik 4ra.  
 Non: Elgoibarren  
 Izenemate bukaera: Plazak bete arte.

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

**«Bloody sunday»**

(Paradisu zinema)

30, domeka:  
18:30

**«Goazen»**

(Film musikala euskaraz)

3, eguaztena:  
18:30

**«Lo mejor de mi»**

(Ongarri zine-kluba)

4, eguena: 21:30

Espainia, 2007. Zuzendaria: Roser Aguilera. Aktoreak: Marian Alvarez, Juan Sanz, Luis Homar. Iraupena: 100 minutu. Raquelek irratian lana egiten du, eta, bere ahots eztiarekin eta samurrarekin, la-

gun egiten die lo egin ezin dutenei. Emakume eskuzabala da, eta bere bizitzan ezin hobeki antolatua du. Haren bizitzak, ordea, ezustean aldatuko da, modu dramatikoan.



## TURISMOAREN KALITATEA

# “Enpresako bezeroa da benetan ziurtagiridun establezimendua garenaz ohartzen dena”

Lau urte dira Zarautz Hotelak Turismo Kalitatearen “Q”a duela. Débora de Dios bertako komertzio-zuzendariak dio nabari dela barne-hobekuntza. Batez ere alor ezberdinen arteko komunikazioa eta langileen parte-hartzea, bezeroarengan zuzeneko eragina duena.

**Zeintzuk izan dira turismoaren alorrekin zerikusia duten sistema eta programa zehatzak aukeratzeko arrazoirik erabakigarrienak?**

Bagenekien bezeroari zuzenduriko sakoneko hobekuntza ekarriko zuela eta gure aldetik lan egiteko era eraginkorra izango zela.

**Ze onura izan du zure erakundeak Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratu zuenetik?**

Diruari dagokionez ez, ez baitut uste bezeroek ziurtagiridun Hotelen gida jarraituko dutenik bata edo bestea aukera tzerakoan. Baina Hotelari dagozkion hobekuntzak nabaritu ditugu

inkestei esker, aldea baitago iragana eta oraina konparatuta. Haieci eginiko inkesten bidez lorturiko emaitzak ongi antolatuz gero, informazio fidagarria lortzen duzu.

**Sistema aplikatu zenuenetik ze onura izan dituzue barne-antolakuntzan?**

Urtero aspektu askotariko formazio lana egiten da, lanpostu bakoitzean. Inkestei esker, arinago ibiltzen gara hobekuntzak egiterakoan; adibidez, bezeroek ma txuraren bat atzematen badute mantenuan, azkarrago konpon dezakegu. Bestalde, orain askoz komunikazio hobea dugu kalitateaz ardura

tzen den sailak hilabetean behin bilerak finkatu dituelako, eta astean behin sail bakoitzeko arduradunak. Taldean lan egiten dugu.

**Eta bezeroaren gogobetetzeari dagokionez, ze hobekuntza izan dira?**

Bi inkesten bidez helarazten digute bezeroek euren informazioa: bat geletan egiten dute, eta beste bat, gai laburra goekin, harreran. Euren balorazioak kontuan hartzen ditugu, aztertu eta hobekuntzak egiteko, nahiz eta zenbaitetan hobetzea ezinezkoa zaigun (parkinga handitzearena kasu).

**Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratu izanak zure erakunde maila lehiakorrago batean kokatu duela uste duzu?**

Salerosle eta merkatariekin lan egiten dugu, eta haiek ez dute libu-

ruxketan Turismo Kalitatearen “Q”aren aipamenik egiten. Haatik, jarriko balute ere, uste dut oraindik bezeroak ez direla ziurtagiriak adierazten duenaz ohartzen (nahiz eta publizitate kanpaina ezberdinak egon) eta beraz, ez direla gai horren araberrako aukeraketa bat egiteko. Aitzitik, enpresako bezeroa da benetan ziurtagiridun establezimendua garenaz ohartzen dena.

**Zeintzuk uste duzu izan direla “Q”aren prozesua abiatu zenuenetik landu dituzuen atalik aipagarrienak?**

Kanpotik zein barrutik datozen ikuskariek beti zoriontzen gaituzte lantaldearen inplikazioa dela eta. Jendearen kritikak eta zoriontzeak gordetzen dituen onen sistema bat dugu; asko jasotzen ditugu astean zehar eta ikuskariek esaten digutenez, oso ondo kudeaturik



Zarautz Hotela

dugu arlo hau, hasieratik amaieraraino.

**Gomendatuko al zenioke edozein erakunderi “Q”arena bezalako sistema bat?**

Bai, azkenean, barne-hobekuntzak gauzak ea egoki egiten diren ikusteko eta hala ez bada hobetzeko balio duelako. Baina batez ere, sail bategen bano gehiagok parte hartzen duten ekintzetan gauzak nola kudeatu finkaturik duzulako.

**Eusko Jaularitzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrago izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:**

**JARDUNBIDE EGOKIAK:**

Kalitatearekiko konpromesua eta sensibilizazioa, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionalcei zuzendutakoa.

**TURISMO KALITATEAREN Q-A:**

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenen betekizunen bermea.

**EFQM BIKAITASUN EREDUA:**

Erakundeek kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

**JARRI TURISMO-KALITATEAREN Q-A ZURE ESTABLEZIMENDUAN!**

94 607 75 86

94 404 74 70

[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net)

[www.euskalit.net](http://www.euskalit.net)

**“Baieztapen sistema bat dugu eta etortzen diren ikuskariek beti zoriontzen gaituzte lantaldearen inplikazioa dela eta”**



turismoaren  
euskal agentzia  
agencia vasca  
de turismo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO

**EUSKALIT**

Bikaintasunerako Euskal Fundazioa  
Fundación Vasca para la Excelencia

GABONETAKO BERTSO JAIALDIAREN 25.URTEURRENA (1983-2008)

# Elgoibar Bertsoan! afari-jaia



**Abenduak 19, ostirala**  
**SIGMA jatetxean**  
**21:30ean**

Eta nahikoa jan eta edan ondoren, ...

Joxe *Armaitxa*, Francori bertsoan  
Angel Ugarteburu, Gotzon Garateren omenez  
Meabebasterretxea eta Ziarda, koplatan  
Uxue Alberdi eta Erika Lagoma, Kamasutra  
Errazu bertso-eskola, bertso-tramarekin

... eta beste sorpresa mordo bat!

Prezioa: 30 euro (25 euro Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Afari-txartela erosteko: Elgoibarko Izarra  
943 74 16 26  
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com  
(Azken eguna: abenduak 12)

# Cincuentones



**Abenduaren 12an,  
ostirala  
22:15ean  
Herriko Antzokian**

**THE NORTHERN KENTUCKY  
BROTHERHOOD SINGERS**

## **Gospel kontzertua**

**Abenduaren 19an,  
ostirala  
22:15ean  
Herriko Antzokian**



## **CABARET SOBRE HILOS TXOTXONGILOAK**

Testurik gabe

**AZAROAREN 30EAN,  
IGANDEA  
16:30EAN  
HERRIKO ANTZOKIAN**



Kultura saila



Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritz



SAREA